



*Castildetierra
Errege-Bardeen Parke Naturala
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

H DBH2

2021/2022

Zuzenketa-koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Euskal Hizkuntza Gaitasuna

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba bat egingo duzu, bi zati dituen.

1. zatia – Irakurmena

Atal honetan lau testu irakurriko dituzu:

- *Ikaroren hegaldia.*
- *“Oteiza familian” onlineko tailerra.*
- *Poema matematikoa*
- *Paperaren ibilbidea*

Irakurri duzunari buruzko galderei erantzun beharko diezu. **Hainbat motatako** galderak aurkituko dituzu:

- Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan **zuzena** dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu X batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

- Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea, ideaiak erlazionatzea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?.....

2. zatia – Idazmena

Zati honetan azkeneko irakurgaiarekin nolabaiteko erlazioa izengo duen testua idatzi beharko duzu. Irakurri arretaz jarraibideak. Zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.



Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.

Ikaroren hegaldia



Zenbaitetan, gizaki batzuen zorionak beste batzuen zorigaitza ekarri ohi du. Halaxe, Teseok Minotauro garaitu izanak Dedaloren bizitza hondatu zuen betiko. Izan ere, jakin zuenean Minosek Teseok labirintotik ihes egitea lortu eta, Ariadnarekin batera, Kretatik ihes egin zuela, hainbeste haserretu zen, non Dedaloren bila joan baitzen eta oihuka esan zion:

– Jainkoak zigor zaitzala, traidore alaena! Eskatu ez nizun, bada, inor ezin ateratzeko moduko eraikin bat jasotzeko? Huts egin didazu, Dedalo, eta larrutik ordainduko duzu! Gaur bertan labirintoan giltzapetuko zaitut, eta zure semea ere bai, zure sufrimendua biderkatzeko! Ihes egiten jakingo duzula suposatzen dut, baina halakorik egiten ez saiatzea aholkatzen dizut, zaindari-bikote bat jarriko baitut atea zaintzen eta, zuek agertuz gero, burua mozteko agindua izango dute.

Dedaloren semeak Ikaro zuen izena eta hamalau urte betetzear zegoen. Gazte bihurria eta ausarta zen, ilea kiribila zuen eta irribarrea maltzurra, eta hain izaera alaia zeukan, non Knososeko jendeak izugarri maite baitzuen. Hiriko biztanle guztiak, beraz, biziki atsekabetu ziren Ikaro berriro ez zutela ikusiko jakin zutenean.

Dedalo bera ere tristeziak jota geratu zen. Burumakur sartu zen labirintoan, eta itxialdiko lehen orduak isiltasun betean eman zituen. Ezin zuen eraman semea han barruan bizi eta hilko zelako ideia, eta, hala, eraikin madarikatu hartatik ateratzeko bidea nola edo hala aurkitzen tematu zen. Haren adimena, arbelondoa betiereko udaberrian bezain emankorra, ideiak aletzen hasi zen, eta handik gutxira, Dedalok esan zuen:

– Badakit! Hegan aterako gara hemendik, txoriak bezala!

– Ez esan astakeriarik, aita -erantzun zion Ikarok tristeziak-. Noiztik gara gu hegan egiteko gauza?

– Ez ote duzu konfiantzarik niregan, mutiko? Ea, alaitu aurpegi hori behingoz eta lagundu, lan handia izango dugu-eta!

Bederatzi urte ziren labirintoa eraikia izan zela, eta, denboraldi horretan, belarra hazia zen korridore batzuetan, euriak putzuak osatu zituen zokoetan, erleek abaraskak egin zituzten habeetan, eta animalien hondakinak pilatu ziren han-hemenka. Beraz, Dedalok ez zuen arazorik izan bere asmakizunerako behar zituen materialak aurkitzeko. Jo eta ke lan egin zuen egun oso batean zehar, eta hurrengo goizean bi hego-pare erakutsi zizkion Ikarori. Kainabera batzuk argizariz elkartuz eta lumentzuz eginak zituen. Pozaren pozez, Dedalok esan zuen:

– Munduko txoririk bitxienak izango gara!

Soka batzuen laguntzaz, aita-semeek bizkarrean lotu zituzten hegoak. Gero, tarte luze bat eman zuten haiek erabiltzen ikasteko eta, azkenean, halako trebetasunez mugitzea lortu zuten, hego haiekin jaioak zirela ematen baitzuen. Labirintotik ihes egiteko ordua iritsita, Dedalok ohartarazi zion semeari:

– Entzun ondo, Ikaro: ez duzu baxuegi hegan egin behar, itsaso zabalera heltzen garenean itsasoak hegoak bustiko dizkizulako eta, astunduta, itsasora eroriko zinateke.

Ikarak irribarre egin zuen:

– Ez kezkatu, aita -esan zuen-: ahalik eta altuen egingo dut.

– Ez, seme, altuegi ere ez duzu hegan egin behar... Eguzkira gehiegi hurbilduz gero, beroak urtu egingo du kainaberak lotzen dituen argizaria, eta hegoak desegingo zaizkizu. Ulertu duzu?

– Bai, aita.

– Orduan, aurrera. Has gaitezen hegan egiten eta, batez ere, ez zaitez nire ondotik urundu, gertatzen dena gertatzen dela.

Ikaro hegalei azkar eragiten hasi zitzaien, goitik behera, aita irakatsi bezala. Gorputza goratzen joan zitzaion, astiro hasieran eta azkarrago gero, eta burua lehen aldiz atzera biratu zuenean, labirintoa txiki-txiki ikusten zen, miniatura bat bezala. Dedalo, semea urruntzen ari zela ikustean, abiada hartu eta hegan hasi zen. Erabakia zuen Kretatik urrun joango zirela, iparralderantz, han uharte ugari baitzeuden bizitza berri bati ekiteko. Lurretik, nekazariak eta arrantzaleak harrituta begiratzen zieten bi txori handi bitxi haiei. Ikaro, pisugabetasunaren gozamenak bultzatuta eta zeruaren edertasunak zoratuta, barrez lehertu zen, eta barrea erreka baten ura bezain garden aditu zen. Hain pozik sentitzen zen, non hegoak gero eta indar handiagoz mugitzen baitzituen, eta gero eta gorago hegan egiten baitzuen: gora, oso gora, gorago artean...

Dedalori, ordea, kosta egin zitzaion hegaldiaren mirari hartara ohitzea. Tarte luze batez, deseroso sentitu zen, etengabe pentsatzen baitzuen gizakiak lurrari itsatsita bizitzeko jaioak direla. Hala ere, beldur haiek ahaztu zituen eta, hegan zihoan bitartean, haizeak erabakitako tokian nolako bizimodu berria egingo zuten amesten hasi zen. Irribarrez, burua biratu zuen semeari begiratzeko eta, bat-batean, izuzko keinu batek desitxuratu zion aurpegia. Ikaro ez zegoen ez aurrean ez atzean, ez gainean ez azpian! Dedalok alde guztietatik bilatu zuen, alferrik. Azkenean, itsasoan finkatu zuen begirada eta ikusi zuen mutila uraren gainean zegoela, hilotz bat bezain geldirik, zeruari bizkarra emanda. Haren inguruan hegoetako kainaberak zebiltzan itsasoan barreiatuta. Bihotza erdiratuta, Dedalok egia izugarria ulertu zuen: semeak, gazte guztiak bezala burugabea eta ausartegia, konfiantza handiegia izan zuen bere trebetasunean,

txoriak baino gorago hegan egin nahi izan zuen, eta eguzkiak haren harrokeria zigortu zuen, hegoak urtuz itsasoan itoartzeko...

Greziar mitoak, Maria Angelidou, Vicens Vives.

1. “Zoriona” hitzaren zein antonimo agertzen da testuan?

- A. Haserrea.
- B. Adimena.
- C. Poza.
- D. **Zorigaitza.**

1. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, mitoa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

2. Nola egin behar dute hegan Dedaloren ohartarazpenak kontuan hartuta?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk
1	“Ez baxuegi, ez altuegi”.

2. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, mitoa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

3. Zergatik ez zuen ez zuen Ikarok aitaren agindua bete?

- A. Aitak azkarregi hegan egiten zuelako.
- B. Nahi izan ez zuelako.
- C. Ados ez zegoelako.
- D. **Oso harroa zelako.**

3. galderaren analisia

Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, mitoa.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

4. Zeinek zigortu zuen Ikaro?

- A. Minosek.
- B. Itsasoak.
- C. Eguzkiak.
- D. Minotaurok.

4. galderaren analisia

Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, mitoa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

5. Zer motatako testua da?

- A. Albistea.
- B. Ipuina.
- C. Kondaira.
- D. Mitoa.

5. galderaren analisia

Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, mitoa.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia


“OTEIZA FAMILIAN” ONLINEKO TAILERRA

“Oteiza familian”: jabetzeak eta interpretazioak online eta taldeka egiteko programa bat da. Museoak Jorge Oteizaren eskultura-lana berrinterpretatzera gonbidatzen zaituzte, familian eta lagunartean jolastuz eta material errazak erabiliz. Ez dago planteamendu bakoitzerako erantzun itxirik, zuen irudimen eta zuen esperimentatzeko gogoak jarriko dute muga.

Emaitzak partaide guztiekin partekatzeko, egiten duzuen lanaren irudiak eta bideoak Museoaren sare sozialetan argitaratzeko aukera izango duzue. Izan ere, gainerako partaideen ekarpenak ikusteak Jorge Oteizak 1950ean brontze galdatuz egindako **Korearra** obrari buruz ideia berriak izaten eta zuen ikuspuntua aberasten eta zabaltzen lagunduko dizue.

Korearrak gora igotzen ditu besoak, eta hankak zabaltzen, dantzan ariko balitz bezala. Nor da, baina, benetan irudi hori? Pozik al dago, haserre agian? Gizonezkoa ala emakumezkoa? Gaztea ala heldua? Koreatik al dator benetan? Gainera, Oteizari ahaztu egin zaio arropa janzteia, eta ez dirudi oso eroso dagoenik. Janzten, izena jartzen eta historia bat asmatzen lagunduko al diguzue?

Korearra



Ariketa eta materialak:

- ❖ Hasteko silueta obraren argazkia kalkatuz marraz dezakezue.
- ❖ Ondoren, pintatu aurpegiera eta arropak. Aurpegiera paperean ere ebaki dezakezue, edo buztinez modelatu.
- ❖ Gero jarri behar duen arropa, paperez edo kolorezko oihalez esaterako.
- ❖ Bukatzeko, eman izena. Gure Korearrak denbora luzea darama hemen bizitzen eta oraindik ez du izenik eta ez dakigu nor den. Beraz, ez ahaztu izena jartzea eta bere historia guri azaltzea.

Lana amaitzen duzuenean emaitzen irudiak eta bideoak Instagram, Twitter eta Facebook sare sozialetan partekatu ahalko dituzue #OteizaKorearra traolaz, eta denon artean obrak komentatuko ditugu, elkarrekin ikasi eta barre egiteko. Ekin bada!!!



<https://www.museoteiza.org/eu/actividades/oteiza-lagunartean-online-lantegia/>

6. Zer da “Oteiza lagunartean” programa?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“ Sareko programa komunitario bat da ” edo antzeko azalpena.

6. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

7. Nork sortu du programa hau?

- A. Oteiza Museoak.
- B. Jorge Oteizak.
- C. Korearrek.
- D. Hainbat adituk.

7. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

8. “Brontze galdatuz egin zuen Korearra...”, hau da:

- A. Buztinez.
- B. Harriz.
- C. Metalez.
- D. Paperez.

8. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

9. Nolakoa da Korearra?

- A. Gizonezkoa eta gaztea.
- B. Generorik gabea eta zaharra.
- C. Emakumezkoa eta heldua.
- D. **Nork bere interpretazioa egin behar du.**

9. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

10. Aipatu Korearra berrinterpretatzeko proposatzen dituzten 3 material.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	2 erantzun zuzen.
2	3 erantzun zuzen: “margoak, buztina, kolorezko oihalak, papera, arkatza”.

10. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Irekia

11. Zer adierazten du korearraren jarrerak?

- A. Dantzatzen ari da, pozik dago-eta.
- B. Lotsatuta dago, biluzik dago-eta.
- C. Haserre dago.
- D. **Interpretazio librea du.**

11. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

12. Zein da tailerraren helburua?

- A. Oteizaren obra ezagutaraztea.
- B. Oteizaren obra sare sozialetan iragartzea.
- C. Umeen artean arte ikasketak bultzatzea.
- D. Oteizaren obraren gainean ikuspuntu berriak lortzea.

12. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

13. Parte hartzaileek honako hau egin behar dute:

	E	G
A. Museoan lan bat erakutsi.		X
B. Lan bat sare sozialen bidez argitaratu.	X	
C. Lan bat ordenagailuaren bidez prestatu.		X
D. Korearraren historian oinarrituz, lan bat egin.		X
E. Korearraren argazki bat erabiliz, lan bat egin.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen: G,E,G,G,E.

13. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

14. Noiz zizelkatu zuen Jorge Oteizak Korearra?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	"1950ean".

14. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

15. Nori zuzenduta dago tailer hau?

- A. **Ume txikiak dituzten familiei.**
- B. Arte ikasketak egiten ari direnei.
- C. Lehen Hezkuntzako ikasleei.
- D. Plastika eta ikus-hezkuntzako ikasleei.

15. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

16. Testuak esaten du jarduera honek planteamendu irekia duela. Zein esaldik adierazten du ideia hori? Kopia ezazu:

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<i>"Ez dago planteamendu bakoitzerako erantzun itxirik" edo "Ez dago planteamendu bakoitzerako erantzun itxirik, zuen irudimena eta zuen esperimentatzeko gogoak jarriko dute muga".</i>

16. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

17. Erreparatu testuari. Zenbat hizkuntzatan irakur daiteke?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	"Hiru", "3".

17. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

GIZONA + EMAKUMEA = MAITASUNA

EMAKUMEA + EMAKUMEA = GAIZKI

GIZONA + GIZONA = GAIZKI

BAINA

GIZONA= EMAKUMEA

GIZONA= EMAKUMEA = GIZAKIA

BERAZ,

GIZAKIA + GIZAKIA = MAITASUNA

FROGATU NAHI ZENA



Hélène Delforge (itzultzailea Gerardo Markuleta), Algar argitaletxea.

18. Zer zeinu agertzen da ahapaldi guztietan?

- A. Gehiketarena.
- B. Biderkaketarena.
- C. Kenketarena.
- D. **Berdinketarena.**

18. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

19. Zein bi testu-antolatzaile agertzen dira testuan?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	Aurrekoetatik bat.
2	“Baina” eta “beraz” .

19. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

20. Zeri egiten dio erreferentzia du “gizakia” hitzak?

- A. Gizonari bakarrik.
- B. Emakumeari bakarrik.
- C. **Pertsona guztiei.**
- D. Izaki guztiei.

20. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

21. Zer erakutsi nahi du testu honek?

- A. Maitasuna eragiketa matematikoa dela.
- B. Maitasunak ez duela generorik.
- C. Maitasun mota batzuk gaizki daudela.
- D. Gizaki, emakume eta gizon guztiak maitemintzen direla.

21. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

22. Zer motatako testua da?

- A. Ipuina.
- B. Gutuna.
- C. Olerkia.
- D. Teorema.

22. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia



PAPERAREN IBILBIDEA

DBHko 1. mailatik aurrerakoentzat

Emaila: Ane Jenk Fuertes

1. EGUNA

Nondik dator papera?

Urriak 24

11:00etatik 13:00etara

(Eguraldiaren arabera alda daiteke data)

Basoan ibilbide gidatua.

2. EGUNA

Papera egitea

Azaroak 7

17:00etatik 20:00etara

Papera egingo dugu erabiltzen ez ditugun egunkariak eta abar erabiliz.



IZENA EMATEA:

EPEA: urriaren 8tik 14ra

1, 2 edo 3 laguneko taldetan eman daiteke izena.

Idatzi e-mail bat katalamixonekintza@gmail.com helbidera informazio hau adieraziz:

- Izen-abizenak.
- Jaiotze urtea.
- Nortzuek ematen duzuen izena (nahikoa da taldeko bakar batek idaztea).
- Adin txikikoa izanez gero, nahitaez bete beharko da izen-emate fitxa (e-mailez bidaliko dizuegu).

Covid-19a dela eta:

- Gehienez ere 9 laguneko taldeak osatuko dira.
- Erantzukinzun protokoloa sinatu beharko da (e-mailez bidaliko dizuegu).
- Pandemiak sortutako unean uneko egoerari eutsiko zaio.



katalamixon@gmail.com
@katalamixon
654 78 97 09
#Katalamixonek5Urte



**Abadiñoko
Udala**

23. Non ez genuke iragarki mota hau aurkituko?

- A. Gaztetxe batean.
- B. Ikastetxe batean.
- C. Osasun etxe batean.
- D. Udaletxe batean.

23. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, afixa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

24. Nor arduratuko da tailerraz?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“Ane Jenk Fuertes” .

24. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, afixa .</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

25. Zenbat iraunen du tailerrak?

- A. 5 ordu.
- B. 2 egun oso.
- C. 3 ordu.
- D. Ez dakigu.

25. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, afixa .</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

26. Zer egin behar da jarduera honetan izena emateko?

- A. Tutoreari esan.
- B. Liburutegira joan.
- C. E-maila idatzi.
- D. Telefonoz deitu.

26. galderaren analisia	
Testu tipoa	Etena, instrukzioa, afixa .
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

27. Nongoa da Katalamixon elkarteak?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“ Abadiñokoa ”.

27. galderaren analisia	
Testu tipoa	Etena, instrukzioa, afixa .
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

28. Zein da tailer honen helburua?

- A. Paperaren ibilbidea ezagutaraztea.
- B. Papergintza azaltzea.
- C. Paperaren elaborazio-prozesua erakustea.
- D. Paperaren jatorria ezagutzea.

28. galderaren analisia	
Testu tipoa	Etena, instrukzioa, afixa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

2. zatia - Ekoizpen idatzia

29. Paperaren ibilbideari buruzko tailerrean izena eman nahi duzu. Horretarako, idatz ezazu e-mail bat (80 hitz gutxienez) eta bertan adieraz ezazu eskatzen den informazioa.

E-mailean jaso beharrekoa:

- Hasierako eta bukaerako **agurra**.
- Azaldu zertarako idazten diezun eta hartzailea ezezaguna dela kontuan hartuta, erabili hizkuntza- erregistro egokia.
- Aipatu nola izan duzun tailerraren berri.
- Eskatutako informazioa: izen-abizenak, jaiotze urtea eta zure taldeko kideak.
- Pentsatu sortutako papera erabiliz zer egingo duzun: **eskola-agenda** bat, **egutegi** bat edo **origami panpin** batzuk (adibidez).
- Azaldu zergatik aukeratu duzun proiektu hori.



Kontuan hartu nola sortu behar duzun testua:

1. Pentsatu hasierako planteamendua.
2. Prestatu zirriborroa.
3. Idatzi behin betiko testua.

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

2. Zirriborrea:

Aztertzaileek bete beharreko puntuazio-taula

Atala	Irizpidea	0	0,5	1
PLANGINTZA	1. Zirriborrea (espazioa erabiltzen du)			
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena			
	3. Ortografia. (Irizpideak Zuzenketa Koadernoan)*			
	4. Zuzentasun gramatikala			
EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA	5. Egitekoari lotzen zaio			
	6. Hizkuntza-erregistro egokia eta aberastasuna			
	7. Igorlea eta hartzailearen presentzia testuan			
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia			
KOHESIOA	9. Lotura eta erreferentzia mantentzea			
	10. Puntuazio-markak. (Irizpideak Zuzenketa Koadernoan)**			
Itena 29 – Guztira:			/10	

- Komenigarria da Zuzenketa Koadernoak kontsultatzea.

Atala	Irizpidea	Adierazleak	Ez 0	Partzialki 0,5	Bai 1
PLANGINTZA	1. Ziriborroa	- Ideiak antolatzeko prozeduraren bat erabiltzen du. - Sintetikoa da. - Behin betiko testuak ziriborroa hobetzen du.			
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	- Letra argiz idazten du, okertu gabe eta marjinak utziz. - Testua paragrafotan egituratzen du.			
	3. Ortografia	Irizpideak behean zehaztuta.*			
	4. Zuzentasun gramatikala	- Ez du akats morfosintaktikorik egiten - Komunztadura eta arau gramatikalak ondo betetzen ditu. - -Perpausetan aberatsa da.			
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	- Hasierako eta bukaerako agurra egiten ditu. - Gaiari lotzen zaio eta zertarako idazten duen azaltzen du. - Eskatutako datu guztiak ematen ditu. - Proiektua hautatu du eta zergatia azaltzen du.			
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	- Testua hizkuntza-erregistro egokian idatzita dago, hartzaileari egokitua eta testuingurua kontuan izanda. - Erabili duen hiztegia ez da errepikakorra, aberatsa eta egokia da.			
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	- Igorlea eta hartzailea kontuan hartzen ditu. - Igorleak oso ongi eta argi adierazten du bere ikuspuntua; arrazoiak eta argudio ondo garatuak ematen ditu.			
KOHERENTZIA	8. Zentzu-unitatea	- Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik eta alferrikako errepikapenik gabe. - Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du. - Ideiak paragrafoka antolatzen ditu.			
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura, erreferentzia mantenduz	- Testu antolatzaile eta lokailu egokiak erabiltzen ditu. - Erreferentzia mekanismoak zuzen baliatzen ditu.			
	10.- Puntuazio-markak	- Puntuazio-markak erabiltzen ditu eta egokiak dira.**			
	OSOTARA		/10		

* 3. ORTOGRAFIA	
Puntuazioa	Irizpidea
1 puntu	Gehienez 3 akats.
0,5 puntu	Gehienez 4 akats.
0 puntu	5 akats edo gehiago.

** 10. PUNTUAZIO-MARKAK	
Puntuazioa	Irizpidea
1 puntu	Gehienez 3 akats.
0,5 puntu	Gehienez 5 akats.
0 puntu	5 akats edo gehiago.

Lehen aldiz ebaluatuko da idazmena DBHko 2. mailako diagnostiko probetan. Horregatik, iruditu zaigu gida bat baliagarria izaten ahal dela, zuzenketak errazteko. Pilotaje zehatza egin ondoren, idazmenaren formatua eta jarraibide hauek arretaz berrikusi dira. Lehenik eta behin, atal bakoitzaren azalpena emanen dugu. Jarraian, IV. eranskinean, oraindik ere zalantzarik badago, taula orientagarri bat egin da puntuazio maila zehatz bakoitzaren deskribapenarekin.

Ikasleek mezu elektronikoa bat idatzi behar dute, baldintza batzuk nahitaez betez. 10 puntuen gaineko ebaluazio-matrizea aukeratu da azken balantzea errazteko, uste baitugu hori dela irakasleak ohituta egon ohi diren zenbakizko erreferentzia.

PLANIFIKAZIOA

1. PLANIFIKAZIORAKO TARTEEN ERABILERA:

Lehenengo tarteak ideiak eta hitz solteak jartzeko da, eta bigarrena, zabalagoa, zirriborro bat idazteko. Egokiena zirriborria eta behin betikoaren arteko aldaketak egiaztatzea litzateke, baina ikasle batzuk planifikazio prozesuarekin ohituta ez daudenez, malguak eta irekiak izaten ahal gara zati honen balorazioan.

ZUZENKETA

2. AURKEZPENA: oro har txukuntasun itxura izatea baldintza garrantzitsua da edozein idazki eta edozein lan akademiko aurkezteko. DBHko 2. mailako ikasle gehienek bereganatuta dute gaitasun hori; beraz, bereziki baloratuko dugu paragrafoen arteko tarteak uztea, letra argia izatea eta urratu gehiegirik ez egotea, aldezturik zirriborro bat egin ahal izan dutelako.

3. ORTOGRAFIA: puntuazio sistema bat planteatzen da, zuzen idazten duten ikasleak saritzeko. Taula bat prestatu da; bertan agertzen dira 1 edo 0,5 puntu lortzeko gehienek ere zenbat akats egiten ahal dituzten, eta zenbat akatsetatik aurrera atal honetako nota zerokoa den.

4. ZUZENKETA GRAMATIKALA: DBHko 2. mailako ikasleek behar bezala erabili behar dituzte “Nor-nori-nork” aditz-sistema eta ergatibo kasua. Era berean, ikasleek sortutako kalko lexikalak ez erabiltzea zaindu beharko dugu, hau da, gaztelaniazko hitzen itzulpenak ez erabiltzea. Espero izatekoa da “ari izan” egitura behar bezala erabiltzea.

KOHERENTZIA ETA EGOKITASUNA:

5. ESKATUTAKO ZEREGINAREKIN BAT DATOR ETA ESKAKIZUNAK BETE DITU: zeregina erraza denez, eskakizunen koadroan dauden puntu guztiek agertu behar dira. Hasierako eta amaierako agurrak egoki eman ditu, gaiari lotu zaio eta mezu elektronikoa zergatik idazten duen azaldu du, datu guztiak eman ditu, proiektu bat hautatu du eta zergatia azaldu du. Ez da nahitaezkoa eskaintzen diren hiru proiektuen artean bat aukeratzea, beste bat asmatzen ahal du.

6. ERREGISTROA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA: zeregin honen gako nagusietakoa da elkar ezagutzen ez duten bi pertsonaren arteko erregistro egokia erabiltzea; hasierako eta amaierako agurrek formalak izan beharko lukete, edo, gutxienez, gehiegizko hurkotasunera ez jotzea. Hiztegiak askotarikoa izan behar du, eta hori ere konplexua da, ariketa laburra delako, baina zorrotzak izaten ahal gara, komunikazio lana erraza delako.

- 7. IGORLEAK ETA HARTZAILEAK TESTUAN DUTEN PRESENTZIA:** aurreko puntuari lotuta dago. Hartzailearen markak espero den erregistrora egokitzen dira. Idazten duen pertsonak proiektua zergatik aukeratu duen azaltzen duenean, arrazoi egokiak erabili ditu.
- 8. KOHERENTZIA:** gaiak progresio egokia izan behar du, eta egitura argia sortu. Kasu zehatz honetan, mezu elektronikoaren edukia guztiz zehaztuta dago, eta, beraz, ez da originaltasuna bilatzen, baizik eta gehiegizko jauzirik ez egotea eta dena zentzuzkoa izatea. Ideiak hainbat paragrafotan banatu behar ditu, nahiz eta mezu elektronikoa izan, kontuz ibili behar du informazioa ez errepikatzeko...

KOHESIOA

- 9. LOTURA ETA ERREFERENTEA MANTENTZEA:** Atal honetan lokailuen edo testu-antolatzaileen erabilera baloratuko dugu. Testuaren luzerak eta izaerak ez dute ematen lokailu asko sartzeko, baina testu-antolatzailearen bat beharrezkoa da, edo marratxoak edo beste marka batzuk erabili behar dira, adibidez. Halaber, begiratuko dugu erreferentea mantentzeko orduan ez dagoela arazorik, ez dela justifikaziorik gabeko omisiorik edo gehiegizko errepikapenik egin. Horretarako, DBHko 2. mailako ikasleek gai izan behar dute kohesio baliabide errazak erabiltzeko: elipsia, sinonimoak, izenordainen bat, baita substantibazioen bat ere. Testuaren kohesioa aditzen korrelazio zuzenaren arabera ere izan da. Hiru alderdi horietan akats asko egin badira atal honetan zero puntu ematea ekarriko luke.
- 10. PUNTUAZIOA:** irizpide zehatz batzuk eman dira zuzenketa errazteko.

IV. ERANSKINA Deskriptoreen taula, mailen arabera. Orientabide moduan erabiltzeko.

	0 puntu	0,5 puntu	1 puntu
1. Planifikazioa	Ez ditu tarteak erabili, edo bietako bat bakarrik.	Bi tarteak erabili ditu, erabilgarritasun txikia.	Bi tarteak erabili ditu, eta nabarmen hobe da behin betiko testua.
2. Aurkezpena	Urratu gehiegi daude, ez dago marjinarik, letra ez da ulertzen, ez dago paragrafoen arteko tarte argirik...	Letra irakurtzen ahal da, baina urratuak ditu; itxura txukuna du, baina ez du tarte nahikorik edo marjinarik uzten.	Letra argia da, marjinak utzi ditu, paragrafoak argi bereizi ditu, oro har txukuntasunaren itxura.
3. Ortografia	5 hutsegite edo gehiago.	Gehienez 4 hutsegite.	Gehienez 3 hutsegite.
4. Zuzentasun gramatikala	Akats ugari daude, eta hori ez da DBHko 2. mailarekin bateragarria, eta horrek komunikazioa ere eragozten du. Ergatiboa gaizki erabiltzeak zaildu egiten du igorleari edo hartzaileari buruz ari ote den jakitea, nor-nori-nork etengabe gaizki erabili du eta gaztelaniazko kalko asko daude.	Akats errepikatuak daude, oraindik ez du ongi menderatzen ergatiboaren erabilera, baina mezua ulertu egiten da.	Ez dago akatsik edo, baldin badaude, egitura oso konplexuetan gertatzen dira.
5. Agindutako zeregina	Ez ditu bete eskatzen diren jarraibideak eta ez da binetetan inspiratu.	Eskakizunetako batzuk bete ditu, baina ez guztiak: ez du behar bezala hasi, ez du istorioa behar bezala itxi, edo ez du istorioa kontatu eskatu zaion bezala (binetak, pertsona, iraganeko denbora).	Eskakizun guztiak bete ditu: eskolan hasi da, despistatu da, bere istorioa imajinatu du eta ikasgelako errealtatera itzuli da. Binetetan inspiratu da, lehen pertsona eta iraganean idatzi du.
6. Erregistroa eta hiztegiaren aberastasuna	Hiztegi desegokia: arrunkeak, erregistro oso apala, errepikapen etengabeak, zernahitarako hitz asko...	Lagunarteko harremanetatik urrundu da, erregistroa egokia da, baina ez da oso aberatsa, oso sinplea.	Hiztegi aberatsa, baita formalismoren bat ere.

7. Igorlearen eta hartzailearen presentzia testuan	Ez da inoiz hartzaileari zuzendu edo oso modu informalean egin du. Ez du ia lehen pertsona erabili. Ez du azaldu zergatik aukeratu duen proiektua.	Ez du behar bezala hartzailea aipatu. Lehen pertsona erabili du, baina ez du arrazoi egokirik eman.	Hartzaileari zuzen zuzendu zaio, lehen pertsona oso ongi erabili du, behar denetan, eta azalpena zentzuzkoa da.
8. Koherentzia Egitura argia, informazioaren garapen egokia	Testua ez da koherentea, zentzurik gabeko jauziak daude, kontatutakoaren bilakaerak ez du haririk, eta, beraz, ez dago gaiaren garapen egokia, ezta egitura argia ere.	Egitura argia ikusten da, baina jauzi batzuk daude edukian, edo ez du gaiaren garapen ona lortu; izan ere, imajinatutako istorioaren sarrera bortxatua da, ez dago lotuta, bat-bateko jauzi bat dago, ez dirudi testu bereko zati bat denik...	Testua koherentea da, asmatu egin du istorioa imajinatzen, eta zentzuz amaitu du. Beraz, gaiaren garapen ona dago eta egitura argia ikusten da. Kontatutako guztiak lotura du eta bilakaera logikoa da.
9. Lotura eta erreferentea mantentzea Lotura eta erreferentea mantentzea	Ez da argi geratzen erreferentea, omisioak eta errepikapenak, lokailuen eta kohesio baliabideen erabateko gabezia. Akatsak denboren korrelazioan.	Batzuetan, erreferentea galtzen da. Lokailu oso sinpleak, zenbait errepikapen.	Lokailuak eta kohesio baliabideak (sinonimoak, izenordainak...) erabili ditu; horrela, ideiak ongi lotuta daude eta erreferentea mantentzea lortu du.
10. Puntuazioa	5 akats baino gehiago egin ditu puntuazio-markak erabiltzean. Apenas erabili ditu komak, edo akats asko daude. Horrek esaldiak luzeegiak izatea edo esaldi horiek komunikazioa eragozteak dakar.	4 edo 5 akats egin ditu komak, puntuak, puntu eta komak... erabiltzean	3 akats edo gutxiago egin ditu puntuazio-markak erabiltzean. Horrek esan nahi du ez dagoela akats larririk, esaldiek hedadura egokia dutela, erraz irakurtzen direla...

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

~~Agenda bat egin~~ Agenda personalizatutako egitea ~~hasi~~
Nori: Cissido-ean.

2. Zirriborrea:

Abenduaren: 12 eta 12 on Cissido-ean egingo dugu
Tailer bat paper birziklatuarekin. nahi duena etorri
ahal da ez dogelako gende limitarik. Aratzabete
sitakun izango da eta agenda zure gustura egingo
dugu.
Espero dut etortzean aktibitate oso polita
izango delako.

MEZU BERRIA
Hartzailea:
Gaia: Agenda batzuk egitea

Paper hirtziklaturakin egiteko tailerra

Tailerra abenduaren 11-12 an izango da.

Tailerra mendikaririk ezinikoa antolatuko dugu.

Da egongo gende hiruiterik nahi duen clare

ohel da. Tailerran agenda pertsonalizatuak egongo

ditugu. Espera dut zuek etortzea aktibitate

osa polita izango delako eta osa guttora egongo

gordako batzuek nahi duen agenda egiten bere

guttora. Arak bakara da mendiarekin etortzea

leku istali bat delako.

1. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Ziriborroa	Oso eskematikoa da eta informazioa falta zaio.	0,5
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	Testua osatu gabe dago: Hartzailea, hasierako eta bukaerako agurrak falta dira.	0
	3. Ortografia	"Gustora" / "istali".	1
	4. Zuzentasun gramatikala	Tailerran" / "bakoitza".	0,5
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	Hasierako eta bukaerako agurra falta dira. Ez ditu eskatutako datu guztiak eman, gutxieneko hitz kopurura ez da iritsi, hartzailea ez da atazan zehaztutakoa.	0
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	Erregistroa egokia bada ere, hiztegian aberastaun falta sumatzen da: "limiterik" / "aktibitate" / "maskarilla".	0,5
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	Igorlearen eta hartzailearen markak azaltzen dira, baina erreferenteak ez dira atazan eskatuak, bere taldekideak baizik.	0
KOHERENTZIA	8. Zentzu-unitatea	Eskatutako testu motaren egitura ez du errespetatu, zatiak falta dira.	0
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura, erreferentea mantenduz	Erreferenteak beti ez daude argi: "zuek"?	0,5
	10.- Puntuazio-markak	Komaren bat falta zaio, baina, bestelakoan, zuzena da.	0,5
	OSOTARA	Ez du ataza osoa egin.	3,5/10

2. adibidea

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

- Mezu berrak bidali paperaren ibilbidea taldeari.

2. Zirriborroa:

- Zuzen 3-4 minutu gutxi.

- Apuntatu berrak bidali.

- Notekin zuzenak bidali.

- Mezu berrak bidali.

- 3-4 minutu gutxi.

- Azken txirrikak bidali eta notekin zuzenak bidali.

- 30 eskuetan egingo da.

3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea: Kati-Luisa @gmail.com
Gaia: Paperaren Ibilbide Tailerra.

Hainbat, nire ... Aitz. Nire Aitz. 3
 Lagunen Jorako nire: H ... C ... F ... M ... O ...
 M. ... eta ... Nire VTT-tailerra
 21 Jaio nintzen, hainbat Aitz. nire 31-en nire Ibi Luis
 VTT-tailerra 1-en. Hainbat 2007-Moan gura eta odoan
 Jose-nekin Jorako gura Ibi Luis aitz. nire paperaren
 agurak egin nahi dut, esan nahi dut, agurak egin nahi dut
 hainbat berri bat daude. Hainbat VTT-tailerra, lortu eta
 Tria nahi dut izate agurak. Hainbat paperaren egin
 nahi du, agur gura nire 31-en nire eta nire
 bat egin nahi du. Eta azkenik Ibi Luis ~~paperaren~~
 agurak egin nahi du. 2022-Moan.
 Hainbat ikusita ikusita.

2. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Ziriborroa	Oso eskematikoa da eta informazioa falta zaio.	0,5
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	Letra ez da oso argia eta marjinak ez ditu guztiz ongi errespetatu. Bi zirrimarra nagusitzen dira. "Kaixo"...hurrengo paragrafoa.	0,5
	3. Ortografia	Zenbait izen berezi ez ditu hizki larriz idatzi: "luis" eta "larramendi". "Esker ikasko" / "31-an" / "1-an" / "2022-koak" / "Martsoaren" / "Jose-rekin".	0
	4. Zuzentasun gramatikala	- Perpaus bakunak nagusitzen dira. - Ergatiboaren erabilera zenbait kasutan okerra da: "nik joango naiz" (ni), "Haritz papiroflexia egin nahi du" (Haritzek). - Aditz aspektua: "horrela beste bat daukat" (edukiko dut). - Komuntadura falta: "tanke bat eta txori bat egin nahi du" (ditu) - "Urtarrilaren 21 jaio nintzen".	0
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	Eskatutako testu motaren egitura errespetatu du (hasierako agurra, aukeraketa eta zergatiak, datuak eta amaierako agurra). Hasierako eta bukaerako agurrak egin ditu, nahiz eta hasierakoa ez desberdindu. Gaiari lotzen zaio eta zertarako idazten duen azaldu du.	1
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	Hartzailea ezezaguna dela kontuan izanik, "Kaixo" hasierako agurra ez litzateke egokiena, baina gainontzean erabilitako erregistroa egokia da, hiztegia eta argudioak nahiko sinpleak diren arren.	0,5
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	Igorlea eta hartzailea kontuan hartu ditu. Goi-buruko hartzailea eta gaia ondo adierazi ditu, nahiz eta argudiaketa ez duen gehiegi garatu.	0,5
KOHERE NTZIA	8. Zentzu-unitatea	- Informazioaren garapena ulerkorra da, baina kasu batzuetan ez ditu ideiak ongi adierazi: "esker ikasko ikusteagatik". - Testuaren zatiak ez ditu ongi bereizi: "Kaixo".../ "esker ikasko ikusteagatik".	0,5
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura , erreferentzia mantenduz	Oro har, erreferentzia mekanismoak ondo erabili ditu.	1
	10.- Puntuazio-markak	Antolatzaile eta lokailuen ondoren ez du komarik erabili; hasierako agurraren ondoren koma erabili di bi puntuak jarri orde; bukaeran, izenaren ondoren puntua erabili du.	0,5
	OSOTARA		5/10

3. adibidea

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

Gaua oso interesatzen zait ~~eta~~ non? da eta, beraien tailerrera joan nahi dut papera egiteko eta paper horien egitegi bat.

2. Zirriborroa:

- Kexko Ane, M. nalez
- Email hau bidaltzen ditzut, ni tailerrera apuntatu nahi dudala jakinarazteko.
- Udalaren nitzeko topatu nuen frogaren
- H. G. , 2007ko abenduaren 14a, 12:00 orduan, 1. o. 5. eta 6.
- Sarrera paperaren egitegi bat egin nahi dut etxerako.
- Proiektu originala eta interesgarria iruditzen zait, gaur oso fusi ditzaket tailerraren

3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea: <u>katalaximoneerintza@gmail.com</u>
Gaia: <u>2en euskararen izena ematea</u>

Kaixo Ane!

Ni M. Ge. nare eta emate honen bidez, tauleta
zerbitzua nahi dudala jakinarazi nahi ditzut.

Ni udaberrian lan egiten dut eta iragurkian begiratuzen
hau? nintzen zure inusi nuen horien artean.

Ahaztu nahi dudenez esakitzan dituzten olatuak biltzen
dizut emen: • Nire izen-abizenak: M. Ge. C.

• Jaiotze data: 2007ko azararen 4a

• Nire taldearen kodeak: J. S. Or. eta J.

Gr. Sc. M.

Pentsatzen egondu nahi eta tauletan sartuko duten
papelaren egitegi bat egin nahi dut nire etxean, berriz.
Hurreko egunean egin behar duzun gauzak apurtuko ditut
beti: berola eta abar. Jarraitu nahi ditzut bukatzen,
proiektu hau oso originala eta interesatzen ematen zaituen
nire ustez garrantzitsuak izango ditut proiektu honen bidez.

Aur!

BIDALI

3. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Ziriborroa	Eskematikoa da, baina ez zaio informaziorik falta.	1
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	Letra argia eta ulerkorra da eta marjinak errespetatu ditu. Hala ere, datuak eman behar dituenean zerrendatu egin ditu, eta horren aldeko aukera eginez gero, testu osoa eskema gisa idatzi beharko luke.	0,5
	3. Ortografia	"Hari nintzen"/ "bidaltzen dizkizut emen" / "egondu nahiz".	0,5
	4. Zuzentasun gramatikala	- Komutadura akatsen bat edo beste egin du: "... eskatzen dituzuen datuak bidaltzen dizut" (dizkizuet). - Desioa adierazteko alegiazkoa hobeto "... egutegi bat egin nahi dut" (egin nahiko nuke). - Hitz ordena: "Jakinarazi nahi dizut bukatzeko". (Bukatzeko, jakinarazi nahi dizut...). - A itsatsia: "gauz asko". - "egondu".	0,5
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	Eskatutako testu motaren egitura errespetatu du (hasierako agurra, aukeraketa eta zergatiak, datuak eta amaierako agurra). Gaiari lotu zaio eta zertarako idatzi duen azaldu du.	1
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	- Erregistroa: hartzailea ezezaguna izanik, "Kaixo Ane!" / "Agur!" ez dira egokiak. - Hiztegia: zehaztasunik eza, hala nola "gauz"; aberastasun falta: "apuntatu" / "interesantea".	0
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	Igorlea eta hartzailea kontuan hartu ditu, baina kasu batzuetan hartzaile bakarrari egin dio erreferentzia "dizut" eta besteetan pluralari: "dituzuen". Goi-buruko hartzailea eta gaia ondo adierazi ditu eta igorleak bere ikuspuntua argi azaldu du.	0,5
KOHERENTZIA	8. Zentzu-unitatea	Informazioaren garapena modu logikoan egin du eta testu motaren arabera egitura jarraitu du. Hala ere, datuak eman behar dituenean zerrendatu egiten ditu, eta horren aldeko aukera eginez gero, testu osoa eskema gisa idatzi beharko luke.	0,5
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura, erreferentzia mantenduz	Oro har, aberastasun gutxi erakutsi badu ere, testuan zehar erabilitako lotura mekanismoak zuzenak dira.	1
	10.- Puntuazio-markak	Hasierako eta amaierako agurrak harridura ikurrarekin adierazi ditu. Koma batzuen erabilera ez da zuzena edo ez dira erabili: "Kaixo, Ane!" / "Apuntatu nahi dudanez," / "nire ustez,".	0,5
	OSOTARA		6/10

4. adibidea

B E-mail bat bidali nahi dut ni eta nire lagunak
paperaren bitartez irakurteko

2. Zirriborroa:

Kaixo.

Ni i M nahiz eta 2007an jaio nahi
ni eta nire lagunak proiektu honetan parte hartu nahi dugu.
Ezintza honetaz berri gure irakurleekin eman dugu. Guk eskola

agenda bat egin nahi dugu gero urtean zehar erabili
izateko. Gainera oso interesgarria iruditzen zaigu guzuz
hauetaz gure kontzertu egitea gehiagotan denda erosten ditugulako.

Joan behar garenen izenak hemen uzten dizkizut:

- M	J	39
- I	A	53
- L	I	70
- A	M	
- E	N	
- J	O	
- O	R	
- I	M	

Mila esker eta laster arte.

MEZU BERRIA	
Hartzailea:	katalamixcenkintzak@gmail.com
Gaia:	Paperaren ibilbidea

Kaixo!

Ni d. M nahiz eta 2010an jada nahiz, ni eta nire lagunak erantzun honen parte hartu nahi dugu. Ekitza honen berri gure ikastetxearen enari dago eta guri eskolako agendak bat egitea interesatzen digu gero ostean zehar erabili izateko. Gainera oso interesgarria iruditzen zaigu gaurer haurak gure kantu egitea gehienez denda erosten ditugulako.

Joan behar garen izenak honen urte dizkizuet:

- Maia

- I

- L

- A

- E

- J

- G

- I

Nila esker eta laster arte

4. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Ziriborroa	Modu sintetikoan, baina eskatutako informazioari erantzun dio eta testua antolatzeko prozedura erabili du.	1
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	Letra argiz idatzi du, marjinak utziz. Testua paragrafotan egituratu du.	1
	3. Ortografia	"Nahiz"/ "aldasorol"/ "igoa"/ "martínez de ordeñana"/ "reparaz".	0,5
	4. Zuzentasun gramatikala	- Ergatiboa: "ni", "lagunak" / aditz denbora: "jaio naiz" - "Ekintza honen parte hartu"/ "interesatzen digu"/ "erabili izateko".	0
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	Hasierako eta bukaerako agurra egin ditu; gaiari lotu zaio eta eskatutako datu guztiak eman ditu, gehiegi garatu ez baditu ere.	1
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	- Hartzailea ezezaguna dela kontuan izanik, hasierako agurra ez da egokia: "Kaixo!". - "Gure kontu".	0,5
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	Igorlea eta hartzailea kontuan hartu ditu eta igorleak argi adierazi du bere ikuspuntua.	1
KOHERENTZIA	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia.	Informazioaren garapena modu logikoan egin du eta testu motaren egitura errespetatu du.	1
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura, erreferentia mantenduz	Konexio mekanismoak gehienetan zuzen erabili ditu, baina aberastasunik ez du erakutsi edo beste batzuetan ez du erabili.	0,5
	10.- Puntuazio-markak	Hasierako agurrari ez dagokio harridura ikurrik; zenbaitetan komarrik ez du erabili: "Gainera" edo gaizki erabili du: "2010ean jaio naiz, ni eta..."	1
	OSOTARA		7,5/10

5. adibidea

1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

Tailerari buruzko informazioa ezaldu, zergatik goan? Nola goan dugu? Zer egingo dugu?

2. Zirriborrea:

- Agurra
- Tailerra goan nahi dugu Adibidea ezagutzeko
- Kartel bat irudi dugu udalarekin
- Zer sortuko dugu? Zergatik?
- Partaideak: M., D., A. → 2008
- Agurra

3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea: <i>katalamixonezin72@gmail.com</i>
Gaia: <i>PAPERAREN IBILDIDEA</i>

KATAMIXON AGURGARRIA:

*Zuen taileraren berri izan dugu udalerriko garritako kartel batean
bide, momentu hartatik interesatzen zait zuen jardueragatik izan
arazko guretzat zuzen zuen ibilbidea eragutten.
Tailer honetan sartuko gaurkean paperarekin eskola agenda bat
eta egutegi bat egitea guretzat lizaintzen, baina gure
kargelen arazatzen nahiko galdurik gauden eta oparitzen bat
egitea pentsatu dugu.*

Hemen uzten dirizuei nire datuak ere nire taldeko partaideekin:

*N, J, O, S, H, denizen nire eta zere
urteko gure nirekin (baina nire taldeko partaideak ere)*

Nire taldekoak M, A, eta A, B, dira

AGUR BERO BAT!

5. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Ziriborroa	Era sintetikoan, baina alderdi guztiak hartzen ditu kontuan eta ideiak antolatzeko prozedura erabili du. Behin betiko testuak ziriborroa hobetu du.	1
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	Txukun idatzita dago: ez du zirrimarrarik egin eta letra argia eta irakurterraza da. Marjinak ere ondo zehaztu ditu eta paragrafoetan egituratu du.	1
	3. Ortografia	"Pentxatu".	1
	4. Zuzentasun gramatikala	- Aditz denbora: "zitzaigun" (litzaiguke). - "Interesa piztu zait zuen jardueragatik".	0,5
EGOKITASUNA	5. Egitekoari lotzen zaio.	Gaiari lotu zaio eta zertarako idatzi duen argi azaldu du. Bestetik, azalpena argudiatu eta eskatutako datuak ematen ditu.	1
	6. Hizkuntza-erregistroa eta aberastasuna	- Hasierako eta bukaerako agurrak ez dira egokiak: "Katamixon agurgarria" ez da pertsona; "Agur bero bat!" harridura ikurra. - Hiztegia: zehaztasunik gabekoa: "ikasgelan oraindik nahiko galdurik gaude".	0,5
	7. Igorle eta hartzailearen presentzia testuan	Igorlea eta hartzailea kontuan hartu ditu. Goi-buruko hartzailea eta gaia ondo adierazi ditu, nahiz eta argudiaketa behar den bezala ez duen garatu: "ikasgelan oraindik nahiko galdurik gaude"?	0,5
KOHERENTZIA	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia.	Informazioaren garapena modu logikoan egin du, kontraesanik eta alferrikako errepikapenik gabe. Eskatutako testu motaren egitura errespetatu du (hasierako agurra, aukeraketa eta zergatia, datuak eta amaierako agurra).	1
DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	9. Lotura, erreferentzia mantenduz	Oro har, erreferentziak ondo baliatu ditu.	1
	10.- Puntuazio-markak.	Koma bat falta da "izan ere,". Bukaerako agurrari ez dagokio harridura ikurrik: "Agur bero bat!".	1
	OSOTARA		8,5/10